



BARREN

TOKIKOM

# MARTIN ZALAKAIN

## Literaturako klasiko baten antzezpen-dantzatua







*Baserriz baserri, kantuan eta eskean*

# SANTA AGEDA BEZPERAN ELGOIBARKO IZARRAREKIN

Otsailaren 4an, asteartea,  
arratsaldeko 14:30ean elkartuko gara Kalegoen plazan.

Gaueko 21:30ak arte jardungo dugu kantuan eta eskean,  
gero Aiastiako soziedadean afaltzeko.

**Urtarrilak 29 izango da koruetan izena emateko azken eguna:  
943 741 626 / [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)**

## Entitateekin egon nahi dugu!

Esan genuen EUSKARALDIA ez zela urte bateko kontua izango, eta dagoeneko prest daukagu bigarren edizioa.

Lehen edizioko ariketa eta helburuak errepikatuko dira, *ahobizi* eta *belarriprest* rolekin, baina badago nobedade edo berrikuntza bat: **entitateen parte-hartzea**.

**Entitateek ere modu aktiboan parte hartuko dute ariketan:**

- Udalak eta haren arduran dauden entitateek
- Ikastetxeek
- Era askotariko elkarteek eta gizarte mugimenduek
- Merkatariek eta ostalariek
- Enpresek edo industria-munduak

Zer egin behar dute entitateek? Lan handia izango al da?

Hori guztia argitzeko egon nahi dugu Elgoibarko entitateekin.


Entitate asko eta asko dago Elgoibarren. Eta alor guztietako entitateekin egingo ditugu informazio bilerak, baina ona litzateke nahi duzuen guztiokin aurrez aurre egotea.


**Nahi al duzue zuenera joatea eta entitateontzat zer prestatu dugun azaltzea?**

30 minutu baino ez dira izango.

**Prest bazaudete, esaguzue eta gustura lotuko dugu zuokin egoteko hitzordua.**

 [elgoibar@euskaraldia.eus](mailto:elgoibar@euskaraldia.eus)

 943 741 626

 643 499 169

**Eskerrik asko eta zuen deiaren zain geratzen gara!**





## ▶ AITA AGIRREKO ARGIAK

lazko urriaren 17an, 5.596 zenbakidun idatzia erregistratu nuen Elgoibarko Udalean. Herrian dauden bi arazoren inguruko azalpenak eskatzearekin batera, konponbideak jartzea eskatu nuen. Hala, Aita Agirre eraikineko argiak gau osoan piztuta egoten direla azaldu nuen, horrek herriarentzat daukan alferreko gastuarekin. Musika Eskolako argiak egun osoan ez direla piztuak egoten ere gogorarazi nuen. Aldi berean, eraikin horretako motore bat 24 orduan martxan dagoela azpimarratu nuen. Zarata handia egiten du motore horrek, eta desatsegina da inguruko bizilagunentzat. Bi aldiz joan naiz udaletxera erantzun baten bila, baina ez dut idatziz erantzunik jaso. Telefonoz norbaitek erantzutea lortu nuen azkenean, eta hark honela esan zidan: "Araudia betetzen dela esan didate". Araudia beteko

du, baina ikaragarriko zentzugabekeria da egiten ari direna. Elgoibartar guztiok ordainduko dugun alferreko gastua egiten ari dira argindarrarekin. Eta aire girotuaren motorra 24 orduan martxan badago, laster izorratuko eta konpondu beharko da. Gastu horren ordainketa ere elgoibartar guztion poltsikotik irtengo da.

Handik aste batzutura, Aita Agirre eraikin berriko argiak itzaltzen hasi ziren gauetan. Udalera zentzua itzuli zela ematen zuen. Baina berriro ere hasi dira gauetan argiak pizten. Zergatik? Zertarako? Nor da horren onuraduna?

Azken ohar modura. Eraikin berria izanda, zergatik ez dira eguzki panelak jarri, Aita Agirreko eraikina energia aldetik autosufizientea izateko?

J.J.A

## ETORKIZUNERANTZ HEZKUNTZA ERALDATZEN

**2019-20an jaiotako hauren matrikulazio-aldia zabalik,  
urtarrilaren 13tik 24ra, otsailetik aurrera hasiko diren haurrentzat**



**elgoibar ikastola**



**Ordutegi zabala / Jai-zubietan eta oportetan irekita**

[www.elgoibarikastola.eus](http://www.elgoibarikastola.eus)  
943 744441







 <p><b>BARREN</b></p>	<p style="text-align: center;"><b>Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR</b> 943 744 112</p> <p style="text-align: center;"><b>Publizitatea: 943 743 704</b> <a href="mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus">barren.publi@elgoibarkoizarra.eus</a> <a href="mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus">barren@elgoibarkoizarra.eus</a> <a href="http://www.barren.eus">www.barren.eus</a></p> <p>BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen liritzia, hitz eta klik eta eskuittzak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. <b>KOORDINATZAILEA</b> Ainhoa Andonegi <b>KAZETARIAK</b> Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia <b>HIZKUNTZA ARDURADUNA</b> Ainara Argoitia <b>PUBLIZITATEA</b> Leire Rubio <b>MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA</b> Zalaoa Arnaiz <b>ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA</b> Aitor Lauzirika <b>ADMINISTRARIAK</b> Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro <b>KOLABORATZAILEAK</b> Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño <b>INPRIMATEGIA</b> Gertu Koop.E. <b>TIRADA</b> 4.885 ale <b>LEGE GORDAILUA</b> SS-1.038/92 <b>ISSN</b> 1138-1855</p>	<p>BABESLEA:</p> <div style="text-align: center;">  <p><b>ELGOIBAR</b> UDALETXEA AJUNTAMIENTU</p> </div> <p>LAGUNTZAILEAK:</p> <div style="display: flex; flex-direction: column; align-items: center;">   <p><b>Gipuzkoako Foru Aldundia</b></p> </div>
 <p><b>ELGOIBARKO IZARRA</b> Euzko Legearen Topagunea</p>		



I. URTEURRENA

## *Jesus Urizar Artolazabal*

*"Plaentxi"*

2019ko urtarrilaren 7an hil zen, 69 urte zituela.

***Haizeak darabil zure ahotsaren doinua  
bihotzean daramagu zure irribarrea  
gogoan zaitugu orain eta betiko.***

Familia



I. URTEURRENA

## *Francisco Sota Allende*

2019ko urtarrilaren 17an hil zen, 88 urte zituela.  
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan,  
urtarrilaren 18an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren  
eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Madarixako baso eta zelaietan  
haizearen lagun zaitugu, aita!***



VIII. URTEURRENA

## *Mari Karmen Gabilondo Etxabe*

2012ko urtarrilaren 19an hil zen,  
58 urte zituela.

Zortzi  
Zor  
Hor  
Urte  
Ur  
Dira  
Zira  
Gira





# ► Gremioen gida

## ARROZTEGIAK

**BIANA, S.L.**  
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
[www.biana.eus](http://www.biana.eus)  
[info@biana.eus](mailto:info@biana.eus)



**Ulazia**  
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albixuri industriagunea, 1-O/ 1-P  
943 740 547



**iraolagoitia**  
arrotegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutuz-gain industriagunea, 9  
20650 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

[www.iraolagoitia.com](http://www.iraolagoitia.com)

**IMAR**  
ARROZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 beheak  
943 531 471  
609 054 978  
[carpinteriaimar@hotmail.com](mailto:carpinteriaimar@hotmail.com)



Aroztegia · Carpintería

**ASIMA**

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225  
[asimaaroztegia@gmail.com](mailto:asimaaroztegia@gmail.com)

## ITURGINTZA

**PAGOAGA S.A.**

BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Umuzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565  
[cliente@pagoagasa.com](mailto:cliente@pagoagasa.com)  
[www.pagoagasa.com](http://www.pagoagasa.com)

BILTEGIA  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
[taller@pagoagasa.com](mailto:taller@pagoagasa.com)

ELGOIBAR

FONTANERÍA

**Ibámar**  
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, beheak B  
Elgoibar  
Floren Cid: 647 463 436  
[ibamar@euskalnet.net](mailto:ibamar@euskalnet.net)

**ongi** Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523  
[ongi@ongielgoibar.com](mailto:ongi@ongielgoibar.com)  
[www.ongielgoibar.com](http://www.ongielgoibar.com)

**SANTANA**

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheak  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
[santanaiturgintza@gmail.com](mailto:santanaiturgintza@gmail.com)

## ERREFORMAK

**ESTUDIOS ARRILLAGA**

Erosario kalea, 15 beheak - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019  
605 713 168

## IGELTSERITZA

**A. Garate**

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua

[angelmgarate@gmail.com](mailto:angelmgarate@gmail.com)  
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zkia  
Elgoibar

610 226 651

## PINTURA

**BIOK**  
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552  
606 431 120  
[biok@biokdekorazioa.com](mailto:biok@biokdekorazioa.com)

- Igeltseritza
- Pintura

## ELEKTRIZITATEA

**CARRANZA,**  
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga, 10, 6.B  
Elgoibar  
[karranza@gmail.com](mailto:karranza@gmail.com)

Tel.: 943 741 280  
Jose Luis: 626 555 999



**egoluz**  
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462  
Ego-Gain, 9 AC  
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345  
Pedro Migel Umuzuno, 14 beheak  
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697  
[ego.luz@hotmail.com](mailto:ego.luz@hotmail.com)

## LEIHOAK

**LODOSO**  
LEIHOAK


SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223  
[lodosofj@gmail.com](mailto:lodosofj@gmail.com)  
Tel.: 943 74 34 90

- Leihoak
- Iturgintza
- Elektrizitatea

- Aroztegiak
- Erreformak


## Sua piztu zen martitzenean Urnobitza inguruan, Ekaitz mendian

Sua piztu zen martitzen arratsaldean Urnobitza inguruan, zehazki Ekaitz mendian. Arratsaldeko laurak aldera hartu zuen indarra suak, eta Arrateko (Elbar) eta Urolako parkeetako (Azpeitia) suhiltzaileak bertaratu ziren sutea itzaltzera. Gipuzkoako basozainen elkartekoak aritu ziren lanak zuzentzen. Haizeak gogor jotzen zuen egun horretan, eta horrek, zaildu egiten zuen suhiltzaileen lana. Iluntzeko 22:00ak alderako kontrolatu zuten sua, baina badaezpada gau osoan ingurua zaintzen aritu ziren arduradunak, eta eguazten goizean ere han jarraitu zuten, haizearen eraginez sua berriz pizteko arriskua zegoelako. Sua piztu zen inguruan txabola txiki bakarren bat badago, baina etxerik ez gertuan, beraz, kaltea materiala izan zen soilik. Guztira 20-25 bat hektarea erre ziren.



## Sendi Anaitasuna elkartearen urteko batzarra urtarrilaren 26an izango da

Mendaroko Sendi Anaitasuna elkartearen urteko batzarra urtarrilaren 26an izango da Azpilgoetako elizan. Azken urteetan bezala, igandeko mezaren aurretik egingo dute, 11:45ean. Arduradunek jakinarazi dute batzarrera joaten ez diren bazkideek 10 euroko isuna izango dutela. Bestalde, elkartearen izena eman nahi duen orok, ateak zabalik dituela gogorarazi dute. Interesatuak batzarrera bertara agertu daitezke, edo bestela, zuzendaritza batzordeko kideekin jarri beharko dute harremanetan.



### *Engracia Altube Uribe-Etxebarria*

2020ko urtarrilaren 13an hil zen, 92 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



### I. URTEURRENA

### *Isolina Lucas Santos*

2019ko urtarrilaren 16an hil zen, 81 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urtarrilaren 18an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldeztu aurretik eskerrak.





## Martxoaren 6an etorriko dira aurten Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Elgoibarrera

Elgoibarko Udalak ekainera bitartean Herriko Antzokian eskainiko dituen kultur emanaldien berri eman du. Aipatzekoen artean, orain arte beti Eguberrien bueltan etorri izan diren Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen emanaldia dago, izan ere, aurten martxoaren 6an etorriko baitira gure herrira. *Bizi dantza* ikuskizuna aurkeztuko dute, eta ohi bezala, bi saio eskainiko dituzte, bata 17:00etan, eta bestea, 19:00etan. Otsailaren 8an jarriko dituzte sarrerak salgai Herriko Antzokiko lehiatilan 19:15etik 21:45era, eta Kutxabank plataforman ere erosi ahal izango dira. Aurrealmentaren ostean sarrerarik geratzen baldin bada, egunean bertan lehiatilan salduko dituzte.



Pailazoen emanaldiaz gain, beste antzezlan batzuk ere iragarri ditu Kultura Sailak: *Besteak beste*, *Ene ba!* (otsailak 14), *Zaldi urdina* (martxoak 13), *Moko zorrotza* (apirilak 24), eta *Angelita: Iparragirreraren bertso librea* (maiatzak 8).

Aurten ere deskontu bonoak eskainiko ditu Kultura Sailak, 13 urtetik gorakoentzat:

- ◆ Zine-Bonua: lau saiotara doazen erabiltzaileek bosgarrena doan izango dute.
- ◆ Ikuskizun eszenikoen bonua: bi saiotara doazen erabiltzaileek hirugarrena doan izango dute.
- ◆ Ikuskizun eszenikoetara joaten diren adingabeen laguntzaileentzako bonua: Lau aldiz joaten direnak, doan sartuko dira laguntzaile gisa doazen bosgarrenaldian.

## Euskaraldiaren bigarren edizioa entitateetan aurkezteko jendea behar da

Euskaraldiaren lehen edizioan norbanakoek hartu zuten parte, eta bigarren edizioan entitateek ere parte hartzeko aukera izango dute. Ariketan parte hartu nahi dutela erabakitzen duten entitateek euskaraz lasai jarduteko guneak edo hiztun taldeak identifikatu beharko dituzte; *Ariguneak* bezala izendatuko direnak. Era askotariko entitateak izango dira: erakunde publikoak eta haien ardurapekoak, kultur eta kirol elkarteak, gizarte mugimenduak, denda, taberna eta jatetxeak, ikastetxeak, enpresak... Dozenaka entitate daude Elgoibarren, eta horiei Euskaraldia zer den azaltzeko jendea behar dela jakinarazi du talde-eragileak. Ahal den neurrian, entitateekin aurrez aurre egotea nahi dute arduradunek, eta horretarako, ahalik eta jende gehien behar dute. Euskaraldian sinesten duen jendea nahi dute, entitate bati ariketa aurkezteko prest dagoen jendea. Bakoitzak erabakiko du zein entitateri aurkeztu nahi dion: lan egiten duen enpresako zuzendariari, kafea hartzen duen tabernako nagusiari, bazkide den elkarteko lehendakariari, militantea den alderdi politikoko buruari... Eragile-sarean izena ematen dutenek behar duten laguntza eta formazioa jasoko dute aurkezpenak eroso eta gustura egin ditzaten. Eragile-sarean izena emateko [elgoibar@euskaraldia.eus](mailto:elgoibar@euskaraldia.eus) helbidera idatzi edo ondorengo telefonoetara deitu daiteke: 943 74 16 26 / 643 499 169.

## Elgoibarko Izarrarekin baserrietan santa eskean aritzeko izenematea zabalik

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera egunean, irtingo dira Elgoibarko Izarrako kideak baserri baserri kantuan eta eskean. 14:30ean batuko dira Kalegoen plazan, eta bi taldetan banatuta koplaturiko dituzte Elgoibarko baserriak. 21:30 aldera amaituko dute eguna, Aiastiako soziedadean egingo duten afariarekin. Interesatuak urtarrilaren 29rako eman beharko dute izena, 943 741 626 telefonora deituta edo [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus) helbidera idatzita.





## Gorka Luna eta Jurdan Ezenarro 'El Conquis' saioan parte hartzen ari dira

Joan zen asteko alean aurreratu genuen Jurdan Ezenarro mendarokoa ETBko *El Conquis* saioiko parte hartzaileetako bat izango dela aurtengo denboraldian, eta aste honetan jakin dugu Gorka Luna elgoibartarra ere han izango dela. Lunak 19 urte dauzka eta lanbidez artista da. Astelehenean hasi zen saioa, eta partaideek euren buruak aurkeztu zituzten. Txutxumutxuak eta saltsa gogoko dituela esan zuen Lunak.



Jurdan Ezenarro, bestalde, 37 urte ditu. Abenturazalea da, eta kirol erronkak gustuko ditu. Iazko edizioan ere aukeratu zuten parte hartzeko, baina gaixotu eta baja izan zen azken orduan. Ezenarrok ETB1-eko *101 Gaztelu* saioan ere parte hartu zuen 2013an.

## Low cost deluxe taldeak kontzertua emango du zapatuan, Aita Agirreko kultur kafean



Bergarako Low cost deluxe musika taldeak kontzertua emango du zapatuan, Aita Agirreko kultur kafean. Rock estiloko kantak abesten dituzte, eta dozena bat abesti eskainiko dituzte. Taldea lehenago sortu bazuten ere, urtebete inguru da oraingo formazioa osatu zutela. Hauek osatzen dute taldea: Ander Uribealgo (abeslaria), Gorka Gonzalez (kitarra), Unai Garmendia (baxua) eta Gorka Martin (bateria). Emanaldia 20:00etan hasiko da.

## Aitor Etxeberria mendarokarrak 'Morphosis' erakusketa zabalduko du bihar Donostiako Kur arte-galerian

Azken hiru urtetan egindako margoak erakutsiko ditu Aitor Etxeberriak bihar Donostiako Kur arte-galerian zabalduko duen *Morphosis* erakusketan. 19:00ak aldera inauguratuko dute, eta apirilaren 12a arte egongo da bisitatzeko aukera. Ez da Kur arte-galeriatik deitzen dioten aurreneko aldia. Estreinakoz, 2003an deitu zioten. *Babele* izena jarri zion erakusketa hari. Geroztik, eta honekin, bakarkako beste bi erakusketa jarri ditu ikusgai han: *Paisaia eta geometria*, 2008an, eta *Morphosis* orain, eta erakusketa kolektibo batean ere parte hartu zuen, 2016an, beste sei artistarekin batera. Zurriola pasealekuko seigarren zenbakian dago Kur arte-galeria.

## Mus txapelketa Elgoibarren eta Mendaron

Urtarrilaren 24an jokatuko dute Mendaroko Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa, eta otsailaren 1ean izango da Elgoibarkoa. Mendaroko Aitz Beltz tabernan jokatu da eta Elgoibarkoa Tantikan. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeko. Mendaroko bikote irabazleak bi lagunentzako afaria irabaziko du Aitz Beltz tabernan, eta bigarren sailkatuak bi ardo botila. Elgoibarko irabazleak aldiz, Tantikan lau lagunentzako jatordua irabaziko du, eta bigarrenak bi lagunentzako. Gipuzkoako finala otsailaren 29an jokatuko dute, Seguran, eta Euskal Herriko finala martxoaren 14an izango da, Zigoitian (Araba).

## Telebista digitalean aldaketak, Mendaron

Urtarrilaren 6ko astean Itelazpi sozietate publikoak aldaketak egin zituen Mendaroko telebista seinale digitalean, eta ondorioz, zenbait etxetan arazoak sortu dira telebista kate batzuk ikusteko. Telebista kateak berriz sintonizatu behar dira, eta kasu gehienetan horrekin arazoa konponduko dela jakinarazi dute ardura-dunek. Sintonizazioa amaitu ostean arazoak jarraitzen badu, antena konpontzaile bati deitu behar zaio, antenari behar dituen egokitzaileak egiteko.

## Orri markagailuen lehiaketa hilaren 31n amaituko da

Udal liburutegiak orri markagailuen lehiaketa antolatuko du, eta urtarrilaren 31n amaituko da parte hartzeko epea. Elgoibarren erroldatuta dauden umeek edo Elgoibarren ikasten dutenek hartu dezakete parte. Gaia Elgoibar eta kirola izango da. Bi maila bereiztu dituzte, 12 urtera artekoa eta hortik aurrerakoa. Maila bakoitzeko irabazleak tablet bat jasoko du sarritzat. Lanak liburutegian bertan edo [liburutegia@elgoibar.eus](mailto:liburutegia@elgoibar.eus) helbidean entregatu daitezke.

# 'Martin Zalakain', literatura, dantza eta antzerkiaren harilkatze fina

Arg.: Iñaki Zugasti



**'Martin Zalakain' ikuskizuna ikusteko aukera izango da zapatuan, hilak 18, Elgoibarren, Olaizaga kiroldegian (20:30). Juan Antonio Urbeltz koreografo handiak sortu zuen ikuskizuna, Pio Baroja idazlearen 'Zalakain abenturazalea' obran oinarrituta, eta Harkaitz Canok egokitu zuen testua antzezlanerako. Oholtzan, Ander Lipus aktorea da Pio Baroja, narratzailea, eta Josu Garate dantzari eibartarra ariko da Zalakainen azalean. Haiekin batera, hogeitabat musikaririk eta 80 dantzari baino gehiagok parte hartzen dute. Sarrerak Kutxabank zerbitzuaren bidez eros daitezke, baina lehiatilan ere eskuratu ahal izango dira egunean bertan, 10 euroan. (Gazte Txartela dutenentzat, 7 euroan)**

- AINARA ARGOITIA -

L iteratura, dantza eta antzerkia batzen ditu Argia dantzari taldeak bultzatu eta Ikerfolk eta Artedramak ekoiztutako lan honek. Obra handia da, handia hitzaren adierarik zabalean. Euskal literaturako klasiko batean oinarritutako ikuskizuna da, kulturegintzako erreferente handien eginahaletik sortua, agertokian Ander Lipusek eta ehun bat lagunek, dantzari eta musikaririk ondua. Begi-belarrien gozamenerako ikuskizuna da, publikoak eskertu duena eta kritikak, txalotu. 2017ko azaroan estreinatu zuten Bilboko Arriaga Antzokian, eta geroztik, dozena bat agertoki bete ditu. Izan da Euskal Herriko sei hiriburutan, Gasteizen azkena, urtarrilaren 4an, eta Elgoibarren ikusteko aukera izango dugu orain. Ez da *Martin Zalakain* ikusteko azken aukera izango, badituztelako beste emanaldi batzuk programatuta, baina Haritz Euskal Dantzari Taldetik ohartarazi dute ez dela komeni aukera hau galtzea, aurtien emango dutelako azken saioa Donostian eta tartean, uda bueltan, eten bat ere egingo dutelako, orduan izaten dutelako dantza-taldeen emanikizun gehien. Argia konpainiako dantzarietz gain, Eibarko Kezka dantza taldekoek, Elgoibarko Haritz Euskal Dantzari Taldekoek, Iruñeko Dugunakoak, Miarrizeko Maritzulikoek, Portu-

galeteko Elai Alaikoek, Añorgako Arkaitz taldekoek, Astigarra-gako Astigarrekoek eta Debako Gure Kaikoek parte hartzen dute ikuskizun honetan.

## Abentura dantzatua

Bere patuari ihes egin ezin dion abenturazalearen ibilerak kontatuko dituzte agertokian, dantzaren bidez: mendiko ibilerak, maitasunaren hasi-masiak, estraperloaren estuasunak, taberna zuloko beroaldiak, gerrako trantze gordinak eta Zalakainek bidean topatuko dituen adiskidantzak eta aliantzak. Obra honen bidez dantzaren esparruan "mugarri berriak" ezartzeko anbizioa izan dute sormen-lan honen sortzaileek. Batetik, zenbait euskal dantzen eremuan sorkuntzarako bidean egindako ikerketaren emaitza artistikoa taularatu dute, koreografia berritzaileekin eta iradokitzaileekin. Bestetik, dantzaren eta dantzarien alor dramatikoan barneratu da ikuskizuna, euskal dantza dramatiko garaikidea sortzeko helburuarekin. Kritikarien esanetan, dantza-teknikan inoiz ikusi ez bezalako zehaztasuna, adierazpen dramatiko eta emozio bidezko komunikazioa uztartzen ditu *Martin Zalakainek*.



## MAIALEN ASTIGARRAGA

HARITZ DANTZA TALDEKO DANTZARIA

Haritz Euskal Dantzari Taldeko dantzaria da Maialen Astigarraga, eta 'Martin Zalakain' obra 2017an Bilboko Arriaga antzokian estreinatu zutenetik, emanaldi guztietan igo da oholtzara, Gasteizkoan izan ezik. Aitortu du ilusio eta ardura bereziz bizi duela Elgoibarkoa.

### ♦ Nola egin duzue hain ondo elkar hartzeko horrenbeste jendek?

Hasieran kostatu zitzaigun, ez dizut ukatuko, gu oholtzara ohituta gaudelako, baina ez antzeztera. Era berean, Ander Lipus aktorea da narratzailea, eta nik uste berarentzat ere berezia izan dela, antzerki munduan eskarmentua izan arren, beharbada ez zegoelako ohituta agertokiaren saihestetan horrenbeste jende ikustera, atzera-aurrera korrika. Baina ondo hartu dugu elkar, bai. Entseguak taldeka egin izan ditugu, ez delako batere funtzionala dena denok batera entsegatzea, baina bukaerako engranajea Eibarren egin dugu, erdibidean. Lan handia egin dugu, eta emaitza ikusgarria izan dela esan digute ikusi duten guztiek, eta oso pozik gaude.

### ♦ Zer nabarmenduko zenuke?

Juan Antonio Urbeltzen sinadura duen dena da ikusgarria, baina nik uste honek baduela berezitasun bat: bere obretan antzerkira gehien gerturatu den ikuskizuna dela. Lipus bera ibili zaigu dantzariok gerturatze hori nola egin erakusten. Egia esan guretzat erronka izan da hori. Gu ohituta gaude jende aurrean dantza egitera, baina ez hitz egitera edo antzeztera. 'Eroen inauterian', protagonistak maitemintzen diren eszenan, adibidez, eroarena egin behar dugu dantzariok. Beste behin tabernako eszenan, akordatzen naiz Lipusek nola esan zigun dantzan ondo egiten genuela baina ez genuela ahaztu behar taberna batean geundela eta gutako inork ez zuela edalontzi bat eskuan hartu. Azkenik istorioa bera aipatu nahiko nuke, benetan ederra delako. Nik neuk ez nuen ezagutzen *Zalakain abenturazalea* eleberria, baina klasiko bat da eta esango nuke literaturzale direnek ere gozatuko dutela Harkaitz Canok dantzarako egin duen egokitzapenarekin.

### ♦ Argia dantzari taldeak bultzatutako obra da. Argiarekin aspalditik du harremana Haritz Euskal Dantzari Taldeak.

Bai. Argiak hainbat ikuskizun propio sortu eta estreinatu ditu eta nik esango nuke denetan parte hartu duela Haritz Dantza taldeko dantzariaren batek: *Irradaka* (1987), *Zortziko* (1988); *Muriska* (1988), *Alakiketan* (1992), *Kondharian* (1997), *Pas de Basque* (2002), *Axeri Boda* (2008), *Axuri-Beltza* (2009), *Aunitz Urtez* (2012), *Bestaberri* (2013). Argiarekin lan egiteak izugarri aberasten gaitu dantzariak. Batetik, dantza-koreografia ugari ikasi eta beste dantza talde batzuekin harremanetako bidea ematen digulako, eta bestetik, aukera ematen digulako Euskal Herri osoko antzoki handienetan dantza egiteko, bai eta herri txikienetako fron-

## “Goraino bete ditugu antzoki guztiak eta nahi nuke herriko kiroldegia ere hala ikusi”

toietan eta kiroldegietan dantzatzeko ere. Juan Antonio Urbeltzekin lan egitea beti da handia. Eta pertsonalki, niretzat, Martin Zalakin oso da berezia, hasiera-hasieratik bizi izan dudalako prozesua, aurreko beste ikuskizunetan beranduago sartu izan naizelako beti, beste dantzariaren baten ordean.

### ♦ Josu Garate da Martin Zalakain, Elgoibarren ere ondo eza-guna dugun dantzaria. Nola ikusi duzu?

Primeran. Dantzari handia eta konpletoa da Josu. Iruditzen zait, orain, hanka zenbatetan eta noraino jasotzen dugun horren arabera neurtzen duela jende askok dantzaria. Ikusgarritasuna baloratzeko irizpidea hori da nonbait. Euskal dantza eta dantza kontemporaneoak nahasten duten dantza taldeei erreparatzen badiezu horixe egiten dute bereziki: hanka igo eta Zuberoko maskaradetako urratsak sartu. Baina maskaradak ikusi dituenak badaki han edalontzi gainean salto egiteari ez diotela horrenbesteko garrantzia ematen; bai, ordea, urratsari. Iruditzen zait alde gimnastikoa gehiegi baloratzen dela orain. Ikuskizun honetan, baina, dantzariok dantza-estilo asko dantzatzeko ditugu, eta zer esanik ez, Josuk. Bagenekien lehendik ere, baina erakutsi du ondo moldatzen dela estilo guzti horietan: boleroa, makil-dantza, eskotisa...

### ♦ Herrian dantza egitea berezia izango da, ala?

Oso. Emanaldi guztiak izan dira bereziak eta ezingo nuke bat aukeratu, baina herrian, lagun eta ezagunen aurrean dantza egitea beti da beste gauza bat. Ardura moduko bat ere sentitzen dut. Orain arteko saioetan goraino bete ditugu antzoki guztiak, eta nahi nuke Elgoibarko kiroldegia ere beteta ikustea. Datozenak ez dira damutuko.



Maialen Astigarraga, ezkerretik hirugarrena.

# “Prostituzioaz bai, baina hitz egin behar da etxeko langileen esplotazioaz ere”

## ► NORMA VAZQUEZ SORTZEN-EKO PSIKOLOGOA ETA AKTIBISTA FEMINISTA

Mexikon sortu zen, eta 1998az geroztik Bilbon bizi da Norma Vazquez. Gazterik hasi zen mugimendu feministan militatzen eta egun psikologo eta zuzendari lanetan ari da Sortzenen, indarkeria matxistaren kontra egiteko sortutako aholkularitza-zerbitzuan. Hilaren 23an formazio-saioa emango du Elgoibarren Irantz Varella kazetari feminista-rekin batera, Foru Aldundiak eta Zas! Zurrumurren Aurkako Sareak abiarazitako sentsibilizazio kanpainaren barruan. Aita Agirre kulturguneko areto nagusian izango da saioa, 18:30ean. Garazi Ayesta kazetariak dinamizatuko du, eta zaintza zerbitzua egongo da.

- AINARA ARGOITIA -



### ◆ Zeintzuk dira zurrumurru zabalduenak?

Lana kentzen dizuegula, gizarte-laguntzei esker bizi garela eta delinkuentziarako joera dugula. Eta emakume migrantez ari garela, joera dago pentsatzeko eskola gutxiokak garela eta hemengo andreak baino sumisoagoak garela, gizonak menderatuago gaituztela. Gure gorputzak, gainera, are gehiago sexualizatzen dira. Eta gero bada beste kontu bat, zurrumurrua baino gehiago dena: lan jakin batzuk ematen zaizkigu beti merkatuan, bete ditzakegun lan bakarrak horiek direlakoan.

◆ **Garbi dago egoera bidegabe askotan, arrazakeria eta sexismoa gainjarri egiten direla. Gorputz arrazializatuak ikusezin egite bat badago? Kristalezko sabaia sendoagoa al da emakume arrazializatuentzat?**

Aurreko batean irakurri nuen emakume zuri batek kristalezko sabaia

apurtzen duenean emakume arrazializatu bat egoten dela kristal-zatiak batzeko. Emakume migrante hori noiz iritsi den, zein egoeratan etorri den... horrek erraztu edo zailtzen du kristalezko sabaia apurtzera iristea. Ni orain hogeiru urte iritsi nintzen Bilbora, baina, gaur, orduan baino zailago dute migranteek euren egoera arautzeko. Eta are zailagoa dute emakume arrazializatuek. Nik badauzkat hemen lagun argentina-

rrak igarri ere ez zaiena egiten etorkinak direla hizketan hasten diren arte. Haien aldean, andre migrante beltz batek askoz zailagoa du. Arrazakeriaren barruan ere, badago hierarkia bat, batzuk besteak baino egoera zailagoan jartzen dituenak.

◆ **‘Etsaia bera da guztiontzat’ dio feminismoaren esloganak, baina zenbait kolektibotatik salatzen dute borroka feminista gehiago dela emakume batzuen beste batzuen baino. Horien**



### **ustez, zapalkuntzen gurutzatzeen teoria ustelduta dago feminismo hegemoniko zuriaren ahotan. Zer diozu?**

Bai. Iruditzen zait aliantzak sortzea mugimendu feministaren baitan dauden ezberdintasunak eta zapalkuntza-egoe-  
rak identifikatzea eta egoera horietan daudenekin enpatizatzea ere badela. Kezka ezberdinak dauzkagu, eta gerta daiteke ahots handiagoa dutenek indar handiagoa jartzea zuzenean ardura dien kezkei erantzuten. Denok kabitzen garen diskurtsoa ez da bat-batean sortuko, hala ere. Nik neuk ere sentitzen dut batzuetan huts egiten dudala. Gauza bat izan behar dugu argi emakumez ari garenean -noizbait emakumez hitz egi-  
tera ausartzen baldin bagara behintzat: emakume batzuetaz ari garela bakarrik; alegia, beti egongo direla batzuk ez direnak ordezkatuak sentitzen eta ahots propioa izatea eskatzen dutenak. Oso gauza legitimoa dena, bide batez esanda. Ez dugu ahaztu behar, gehiegi-  
keriaz jokatzeko arriskua daukagula; beti ahaztu ditzakegula batzuk, eta horregatik, oso garrantzitsua dela adi ego-  
tea, hitz egitea eta aliantzak sortzea, ahaztu dugun hori zergatik ahaztu dugun identifikatzeko eta zuzentzeko.

### **◆ Ezingo dugu ukatu, hala ere, kritika horiek ezinegon eragin dutenik mugimenduaren barruan. Nola egin dezakegu denok sentitzeko mugimendu beraren parte?**

Nik uste dut beti sortuko direla kolektibo berriak eta beti sortuko direla egoera berriak integratu beharrekoak. 40 urte daramatzat feminismoan eta beti egon da kolektiboren bat erronka jo diguna, eta gainera, oso garrantzitsua iruditzen zait hori, erosotasunean ez jausteko. Aniztasuna da gure ezaugarrietako bat, eta ez dugu sekula hori ahaztu behar. Gure ahizpen kritikek min egiten badigute izan daitekeelako erosoegi gaudelako gu gurean.

### **◆ Emakumea mehatxua da askorentzat, baina nago etorkinak are mehatxu handiagoa direla asko eta askorentzat.**

Euskal jendartea oso uniforme izan da beti eta halako jendarte batentzat erronka handia da migranteen etorrera onartzea eta kultura eta behar ezberdinak dituen eta ekarpen ezberdinak egin ditzakeen jende horrekin guztiarekin jendarte berri bat eraikitzea. Mehatxatuak ere senti daitezke batzuk. Orain hurrengo izan naizen hitzaldi batean, eus-  
kara galtzeko arriskua ikusten zutela entzun nien batzuei. Beste emakume batzuek, tartean feminista batzuek ere bai, arriskua ikusten dute feminismoaren lorpen batzuetan atzera egiteko emakume migranteen etorrerarekin.

*“Ez dugu  
etxeko langileen  
esplotazioaz  
hitz egiten gure  
ongizate-sistema  
zalantzan jartzea  
eskatzen duelako”*

### **◆ Prostituzioaren gaineko gogoeta ere mahai gainean dugu, eta aspadian zalaparta dezentekoa sortzen ari da. Prostituzioa abolitu ala erregulatu egin behar da zure ustez?**

Kaleko prostituzioan aritzen direnen kopuruak behera egin du, baina bistan da kalean prostituzioan aritzen diren gehienak, denak ez badira, emakume migranteak direla, nazionalitate jakin batzuetakoak. Garbi dago, era berean, prostituzioan aritzen diren guztiak ez direla gizakien salerosketaren biktima. Gizakiaren salerosketa kontzeptua bera oso europarra da. Prostituzioan aritzen diren emakume migrante askok badakite zertara datozen, baina ez dakitena da zein baldintzatan egingo duten lan. Lanmerkatuan uzten diegun esparru txiki eta itxi horretan emakume migranteek bizirauteko dituzten estrategiez hitz egin behar dugu. Etxeko lanak eta prostituzioa dira sistema honek emakume migranteei lagatzen dizkien

merkatu-hobiak. Eta sektore bi horietan bizi dituzten esplotazio-baldintzez hitz egin behar dugu, ez bakarrik prostituzioaz. Nik garbi esango dizut: ez naiz aboluzionista, baina horrek ez du esan nahi ez dugunik prostituzioan ari diren emakumeen eskubideez hitz egin behar. Mugimendu feministan badira prostituzioa abolitzea indar handiz eskatzen ari direnak, baina iruditzen zait ez dugula horrenbesteko indarrez egiten etxeko langileen esplotazioaren kontra.

### **◆ Ez zaigulako komeni beharbada?**

Bai. Iruditzen zait zahartzen ari den jendarte baten zaintzaz hitz egitea urgentziazko gaia dela. Gaur egun, zaintzaren arazoari indibidualki ari gaitzazki erantzuten, eta erantzuna beti da emakume migrante bat kontratatzea, askotan edo gehienetan, geuretzat nahiko ez gurekeen baldintzetan. Ez dugu emakume migranteen esplotazioaz hitz egiten, etxekoak zaintzeko beste norbaiten beharra dutenen kopurua handia delako gurean eta gai honi buruz hitz egiteak gure ongizate-sistema zalantzan jartzea eskatzen duelako. Iruditzen zait gai hau denon arazoa dela eta ez bakarrik emakumeena, nahiz eta gaur geu garen zaintzaren arazoari irtenbidea ematen diogunak. Estatuari dagokio irtenbidea ematea, eta guri, exijitzea. Politika publikoak falta dira, eta indibidualki ematen diren erantzun guztiak beti dira emakumeon kalterako, eta emakumeen artean, “ahulenei” edo pobreenei egiten diete kalterik handiena.

### **◆ Beste sexu eraso baten berri izan dugu gaur. Zer esan nahi du horrek, ez garela asmatzen ari gazteak kontzientziazteko eta berdintasunean hezteko egiten ari garen lanean?**

Ez dut uste. Batetik da sexu erasoak arazo pribatu izateari laga diotela eta gaur gutxiago isiltzen ditugula. Hala ere, ez ditugu sexu eraso guztiak entzungo, erason errua emakumei botatzen jarraitzen dugun bitartean, lotsak emakumei eragiten digun bitartean. Bestetik, iruditzen zait dena ez dela hezkuntza. Ez dakit zer gertatzen den. Mutilek hain

dituzte normalizatuta erasoak, askotan jabetu ere ez direla egiten erasotzen ari direna. Aldaketa kulturala behar da. Abenduko kasu bat kontatuko dizut. Mutil batek jazarri zuela salatu zuen neska batek, jazarpena sufritzen hasi eta sei hilabetera. Sei hilabete behar izan zituen jabetzeko bizi zuen hori ez zela normala eta eraso hari izena jarri eta salatzeke. Mutilak, berriz, zera esan zuen: ez zela jabetu eraso zionik. Neskarekin ligatzen saiatu zela, baina ezin zuela lortu ikusi zuenean laga zuela. Onartu zuen beharbada ez ziola beti ondo hitz egin, baina horixe.

♦ **Libre izan nahi dugu, baina askotan geuri eskatzen zaigu geure burua babestea.**

Babestuak sentitzea gure eskubidea da, eta iruditzen zait genero indarkeriaren kontrako kanpainetan gizon gazteei zuzendu behar gaitzaizkiela. Esan behar diegu ezin dutela nahi dutena egin, ez kalean, ez etxean eta ezta beste inon ere. Ni mexikarra naiz eta han emakumeok beti esaten dugu beste emakumeak direla gure babesa, ez Polizia. Hangoa beste testuinguru bat da, baina hemen ere, aldaketa bat ematen ez den bitartean, babestu behar ditugu gure buruak eta bilatu behar dugu babesa kon-

fiantzazko jendearengan. Eta ez naiz preseski Poliziaz ari, paternalismo horretatik ere askatu nahi dugulako.

*“Balioa eman behar diogu borroka feministak lortutakoari eta aztertu nola egin aurre feminismoaren kontrako erreakzio patriarkal berriei”*

♦ **Feminista izatea eta koherenteki bizitzea ez da beti samurra. Emango ahal zeniguke aholkuren bat?**

Ez naiz nor aholkuak emateko, neuk ere sentitzen dudalako ezin bat batzuetan. Gaur ‘gizon berrien’ inguruko artikulatu bat erabili dut eskutan. Titularra bakarrik irakurri dut, baina zer zen hori!. Ipuina! Ez dago gizon berririk, ez eta maskulinitate berririk ere. Feministotik sekula ez dugu horri buruz hitz egiten. Gu beti izan gara gure kontrarian oso kontziente, eta jabetuta gaude diskurtso tradizional eta kontserbadoreak nahiz erabat transgresoreak bizi direla gugan, zaildu eta aldi be-

rean aberasten gaituztenak. Pazientzia izan behar dugu, besteenganako empatia eta ahizpa asko, elkar babesteko.

♦ **Zeintzuk dira mugimendu feministaren erronka nagusiak gaur egun?**

Mugimenduan gauden emakume guztion beharrak aztertu behar ditugu, ezberdinak direlako. Azkeneko bi urtetan masa mugimendua bihurtu da feminismoa. Kaleak bete ditugu emakume askoren aldarrikapenekin, eta mobilizatzeko gaitasun handia dugula erakutsi dugu. Sekulako aurrerapausoak lortu ditugu, baina gero, feministon egiturak ez dira beti horren sendoak ere. Balioa eman behar diogu borroka feministak lortutakoari, sortu behar ditugu elkargunerako espazio berriak eta aztertu behar dugu nola egin aurre feminismoaren kontrako erreakzio patriarkal berriei, indar handia hartzen ari direlako gu isiltzeko, guri bidea tratatzeko. Sektore jakin batzuetatik, bai eta instituzio publikoetatik bertatik ere gure arazoak handiago egiten ditugula leporatzen digute, ez dagoen lekuan arazoak ikusten ditugula, eta gure kontra egiteko, gizonen ere sufritzen dutela gogorazten digute behin eta berriz.



elgoibarko herri eskola

Zuen alaba edo semea 2018an jaiotakoa bada, gure eskola hurbiletik ezagutzeko aukera izango duzue egun hauetan:

urtarrilak 21: 15:00etan (euskaraz) 17:00etan (gaztelaniaz)

urtarrilak 29: 15:00etan (gaztelaniaz) 17:00etan (euskaraz)

Deitu 943 740 879 zenbakira edo idatzi zuzendaritza@elgoibarhe.net helbidera.

AURRE-MATRIKULAZIO EPEA: urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra



## 'Itsasoen deiadarra' ikus-entzunezkoa taularatuko dute domekan, Herriko Antzokian



San Anton jaien barruan, musika, zientzia eta antzerkia uztartzen dituen *Itsasoen deiadarra* emanaldia aurkeztuko du Musbikak domekan, Herriko Antzokian. Natur ondarearen kontserbazioaren garrantziaz sentsibilizatzeko ikuskizun bat da, eta itsasoak eta natur ondarea zaintzeko birziklatzeak duen garrantziaz ohartaraztea du helburu. Bi perkusio joleren musika da ikuskizunaren ardatza, eta horietako bat izango da Elur Arrieta elgoibartarra (Bestea Vincent Zaragoza da). Musikarekin batera, Josu Cámara aktorearen eta Alberto Santolaria itsas biologoaren arteko elkarrizketa batek biodibertsitatearen garrantziaz informartuko ditu ikusleak. Lurrera botatzen ditugun goxokien bilgarriak dortoka eta izurdeei nola eragiten dieten eta egunerokoan hartzen ditugun neurri txikiak ozeano garbia-goak izaten laguntzen dutela ohartaraziko dute, besteak beste.

55 minutuko iraupena du ikuskizunak, eta, batez ere, 7-12 urte bitarteko haurrak dituzten familiei zuzenduta dago. Emanaldia 16:30ean hasiko da.

## Mauxitxa Txarangari eskainiko diote San Anton jaietako zigilu erakusketa

Txiki Egunaren 50. urteurrenaren harira, Mauxitxa Txarangari eskainiko dio aurtengo zigilu erakusketa Altzolatarren Dorretxea filatelia elkarteak. Bihar zabalduko dute erakusketa, 12:30ean, eta 14:00ak aldera arte, txarangari eskainitako zigilu markatzaile berezi bat erabiltzeko aukera egongo da Kultur Etxean. Hilaren 25era arte egongo da erakusketa zabalik. Azken egun horretan Euskadiko Filatelia elkarteak urteko lehen batzarra egingo du 11:00etan Kultur Etxeko hitzaldi gelan, eta horren ostean, aurtengo zigilu erakusketan parte hartu dutenei eta laguntzaileei eskerrak emateko ekitaldia egingo dute. 13:00etan izango da, Kultur Etxeko erakusketa gelan.



## 'ElgoibarKultura.eus' ataria sortu dute

Elgoibarko hainbat kultur taldetan dabilzan kideek *ElgoibarKultura.eus* proiektua sortu dute, Elgoibarko kultur agenda batzeko asmoarekin. Kultur taldeek eurek somatutako behar batetik abiatutako proiektua da. Agenda egutegi bateratu bat sortzea da helburu nagusia, ekitaldi bakoitzak bere eguna izan dezan, besteei kalterik egin gabe. Horrekin batera, herritarrei kultur ekitaldien berri emateko beste modu bat izatea nahi dute. Momentuz, Sinuose, Elgoibarko Gazte Asanblada (Sutegixa), Udal Musika Banda, Musika Eskola eta Elgoibarko Musikarien Elkarte (EME) daude egitasmoan, baina gainerako kultur eragileei ere irekita dago egitasmoa. Interesatuek [elgoibarkultura@hatza.eus](mailto:elgoibarkultura@hatza.eus) helbidera idatzi dezakete.

## Hasi da 2020ko Aurreku Txapelketa

Joan zen asteburuan jokatu zuten 2020ko estreinako Aurreku Txapelketa Legazpin, eta beste hainbat dantzariren artean, Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako ikasleak ere han izan ziren. Nerea Galindo, Naroa Urrutia eta eta Malen Galarraga izan ziren Elgoibarko ordezkariak, eta arduradunen arabera, maila ona eman zuten. Otsailaren 2an izango da hurrengo kanporaketa Villabonan.







## ► Hellen Obiriren eskarmentua eta Tadese Workuren gaztetasuna nagusi Mugertza kro-sean

**A**tletismoko izarretako bat den Hellen Obiri gailendu da aurtengo Mugertza kro-sean, bigarren urtez jarraian. 30 urteko kenyarrak eskarmentu handiko saltakaria dela erakutsi zuen domekan jokatu zuten lasterketan, eta uneoro kontrolpean izan zuen lasterketa. Gizonezkoetan, aldiz, gaztetasunak ematen duen grina erakutsi zuen 17 urteko Tadese Worku etiopiarrek, eta erakustaldia emanez irabazi zuen proba. Emakumezkoetan faborito argia zen Hellen Obiri kenyarra, egungo Munduko Kros Txapel-duna izateaz gainera, 5.000 metroetako munduko txapel-duna ere badelako. Garaipenok, iaz, Mugertza krosa irabazi ostean lortu zituen. Aurten, hortaz, atletismoko izar handi gisa itzuli da Elgoibarrera. Azken itzuli handian egin zuen ihes Obirik eta bakarrik gurutzatu zuen helmuga-marra. Beatrice Chebet eta Eva Cherono kenyarrak sailkatu ziren, hurrenez hurren, bigarren eta hirugarren postuetan. Gizonezkoen proba nagusian ez zegoen faborito argirik, baina Tadese Workuren izena kiniela gutxitan sar-tzen zen. 17 urteko etiopiarrek zilarrezko domina lortu zuen iaz Danimarkan, junior mailako Munduko Kros Txapelketan. Proba hura irabazi zuen Milkesa Megeshak ere korritu zuen Elgoibarren, baina gainerako pate-hartzaileak moduan, ez zion itzalik egin Workuri. Hiru itzuli falta zirenean erritmo aldaketa bortitza egin zuen eta aurkarietako aldea gizendu Helmugan 24 segundoko aldea atera zion Richard Yator kenyarrari. Aron Kifle eritrearrek egin zuen hirugarren. Partaidetza errekorra hautsi du aurtengo Mu-gertza krosa, eta 1.000 saltakaritik gora lehiatu ziren hamabi probetan. 77. Mugertza kro-seko sailkapenak eta argazkiak *barren.eus* webgunean.





## 350 umek hartu dute parte Mugertza krosari buruzko marrazki lehiaketan



**M**ugertza krosari buruzko bosgarren marrazki lehiaketa antolatu dute Mintxeta Atletismo Taldeak eta Elgoibarko Udalak, eta irabazleek (argazkian) joan den zapatuan jaso zituzten sariak, 77. Mugertza krosan parte hartu zuten atletei ongi-etorria egin aurretik egin zuten sari banaketa ekitaldian, udaletxean. Guztira 350 umek hartu dute parte 6 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako marrazki lehiaketan. Saritutako marrazkiak eta sarituak izan gabe aukeraketan onenen artean izan direnak Olaizaga kiroldegian ipiniko dituzte ikusgai, otsailaren 1etik 28ra bitartean. Sariari dagokionez, herriko kirol dendetarako erosketa-baleak jaso dituzte irabazleek. Guztira 60 euroko sei bale banatu dira irabazleen artean, bale bat ikasketa maila bakoitzeko. Honako hauek izan dira irabazleak (bakoitzak eginiko marrazkia *barren.eus*-en ikus dezakezue): Mikel Larrañaga (LH1), Lea Barrutia (LH2), Kenai Ibañez (LH3), Elsa Barrenetxea (LH4), Manar Ahdadou (LH5) eta Uxue Altzerreka (LH6).

## San Anton Pilota Txapelketako finalak, bihar

San Anton Pilota Txapelketaren 28. ekitaldiko finalak jokatuko dituzte barikuan, San Anton Egunean, Ikastolako frontoian. 22:00etan hasiko da pilota jaialdia. Lehen neurketan, promesa mailako bikoteen arteko finala jokatuko dute Alberdi Ilk eta Morgaetxeberriak De La Fuentesen eta Apezetxearen aurka. Senior mailako finalean, berriz, Muruak eta Iriondok Elolaren eta Mariezkurenaren aurka jokatuko dute. Lagunak Pilota Eskolak eta Udal Kirol Patronatuak antolatzen dute afizionatu mailako pilotarietzako txapelketa. Finalak ikusteko sarrerak bost euroan salduko dituzte.



## Inazio Izagirre eta Juan Mugertza atletak gogora ekarri dituzte, Anberesko Olinpiar Jokoetan parte hartu eta 100 urtera



Espainiako delegazio batek Olinpiar Jokoetan parte hartu zuen aurreneko aldia izan zen Anbereskoa, 1920an. Espainiak 56 kirolari eramane zituen Anberesera, eta bi elgoibartar zeuden horien artean, Juan Mugertza saltakaria eta Inazio Izagirre pisu jaurtilaria. Lehen Gerra amaitu berrikan bi elgoibartarrok Anberesera eginiko bidaiaren nondik norakoak eta hainbat bitxikeria azaldu zituzten Mintxeta Atletismo Taldeak eta *Corredor* aldizkariak antolatutako mahai-inguruan, joan den urtarilaren 10ean. Mugertza zein Izagirre aitzindariak izan ziren hainbat arlotan. Mugertzaren eta Izagirreren familiako kideek hartu zute parte solasaldian, Mugertza krosaren historia eta estatistiketan adituak diren Juan Mari Iriondo eta Felix Astigarraga elgoibartarrekin batera, eta Alessandra Aguilar (Lugo, Espainia, 1978) antxitxikari ohiak ere egin zuten berba, parte hartu duen hiru Olinpiar Jokoetan izaniko bizipenez eta Mugertza krosaren bizitakoaz. Kros egunean omenaldi txiki bat ere egin zioten antolatzaileek hainbat alditan Elgoibarko krosan parte hartu izan duen saltakari galizarrari.

**LANA.....**

**Eskaearak**

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko lanak egiteko ere prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.  
☎ 631 931 030

Urtebeteko esperientzia daukat adinekoak zaintzen. Umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko ere prest nago. ☎ 615 526 482

Adinekoak edo umeak zaindu eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Esperientzia. ☎ 612 202 517

Adinekoak edo umeak zaindu eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Esperientzia.  
☎ 632 729 261

Adinekoak zaintzen eta etxeko lanak egiten esperientzia daukat. Orduka edo etxeko langile bezala lan egingo nuke. ☎ 632 992 730

Pertsona arduratsua lan bila. Adinekoak zaintzen eta etxeko lanak egiten esperientzia daukat.  
☎ 636 009 215

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago.  
☎ 631 489 128

Lan bila nabil. Umeak eta adinekoak zaintzen esperientzia daukat.  
☎ 603 078 895

Garbiketara egin eta adinekoak zaintzeko prest nago.  
☎ 603 580 369

Adinekoak nahiz umeak zainduko nituzke, bai eta etxeko garbiketara lanak egin ere. Orduka nahiz etxeko langile moduan lan egiteko prest.  
☎ 632 354 511

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia handia daukat.  
☎ 643 278 344

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Titulua eta esperientzia ditut.  
☎ 671 989 434

Garbiketara lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko prest nago.  
☎ 688 698 854

Adinekoak zaintzeko, lokalak garbitzeko edo zamalanearako prest nago.  
☎ 631 049 957

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko prest nago.  
☎ 631 436 925

Adinekoak eta umeak zaindu, garbitzaile lanak egin nahiz baserriko lanetan lagunduko nuke.  
☎ 632 423 521

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko prest nago.  
☎ 622 153 750

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke, bai eta etxeko etxeetako eta lokaletako garbiketara lanak egin ere. Etxeko langile moduan aritzeko ere prest.  
☎ 631 439 959

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago, Elgoibarren, Mendaron, Eibarren edo Ermuan. Orduka, egun osoz edo etxeko langile moduan.  
☎ 643 977 786

Garbiketara lanak egiteko prest nago. Orduka.  
☎ 637 102 725

**Eskaintzak**

Asteburuetan zerbitzari lanetan aritzeko pertsona behar da. Ezinbestekoa esperientzia izatea.  
☎ 659 539 861

Abentura jarduerarako (Paintball) monitoriak behar dira asteburuetarako. Euskara jakitea beharrezkoa da eta gidatzeko baimena izatea baloratuko da. Ainhua ☎ 660 450 245

DBH3ko klase partikularrak emango dituen pertsona baten bila nabil.  
☎ 617 386 198

**ETXEBIZITZAK.....**

Etxea alokatzen dut, San Roke kalean. Bi logela, bi komun. Etxe polita, berttua. Iggogailua eta lur erradiatzailea, Bista politikak, logela guztiak kanpoaldera ematen dute.  
☎ 660 042 159 (Arratsalde).

**OSPAKIZUNAK.....**

75ean jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute maiatzaren 23an, Be-laustegin. Interesatuek idatzi helbide elektronikoa honetara: 1975kintada-elgoibar@gmail.com



**LAGUNAK**  
colchoneria textil hogar

Etorri eta bisita gaitzazu,  
kalitatezko chunak  
topatuko dituzu!

# MERKEALDIA

**%25eko** beharapena  
Quality eta Kol etxeetako  
nordikoetan

**%45eko**  
beharapena umeen izara  
eta ohe estalkietan

**%40ko** beharapena  
manta eta izaretan

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Instituto Vasco de Administradores Locales Autónomos

**Gure komunitateko kanalizazioan matxura bat dago, eta hori konpontzea komunitateari dagokion jakin nahi nuke.**

Husteko kanalizazioak hondakin solidoak eta likidoak garraiatzeko hodiak dira, eta elementu komunak dira, legean araututa dagoen bezala. Beraz, komunitateari dagokio hori konpontzea.

Hala ere, higiezin batean dauden kanalizazioak elementu pribatibo bihurtzen dira, eta, beraz, kaltetutako jabearen kontura egin beharko dira konpokentak, pisu edo lokal bakoitzean sartzen baitira.

Jatorrizko kokalekua aldatu nahi izanez gero, komunitatearen aho bateko baimena behar dute, aldaketa hori jabekideen interes orokorraren arabera egiten denean izan ezik. Kasu horretan, nahikoa izango da ordezkaritza-kuoten hiru bostenen gehiengoaren adostasuna.

**GOMENDIOA: Kontuan hartu behar da legeak esaten duela ezin dela eraikinaren zatiren bat jabe baten erabilerarako eta gozamenerako erabilezin bilakatzen duen berrikuntzarik egin, haren baimenik ez badago behintzat.**



**ROSA Ma PINTADO**

*Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
[rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Nahia**, neska handi, urtarrilaren 2an 10 urte bete zenituelako. Muxu pila bat familiako guztien, eta bereziki, neba Jonen partez.



Zorionak, **Unai**, zure urtebetetze egunean. Etxeko guztion partez, muxu handi bat. Ondo-ondo pasa.



Zorionak gure etxeko *terremotari!* Asteartean 2 urte handi beteko dituzu, **Beñat!** Muxu potolo bat etxeko guztion partez.




Zorionak, **Sare**, printzesa, asteartean 9 urte bete zenituelako. Etxeko guztion partez.



Zorionak, **Julen**, urtarrilaren 13an 6 urte bete zenituelako. Muxu potolo bat etxeko denon partez.



Zorionak, **hirukote**, urtarrilaren 15ean, 17an eta 30ean urtebete gehiago izango duzuelako. Muxu handi bana, familiakoen partez.



## Elgoibarko haurreskolak MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK!



Urtean 18.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten familiak doan sartu ahal izango dira.

Haurreskolan aldi berean ume bat baino gehiago edukita, kuota bakar bat ordainduko da.



Deitu eta informa zaitez!

**943 742 141**



**ARAMBURU**  
BITXIDENDA

San Frantzisko, 26 Tel./faxa: 943 742 535

URTERO BEZALA, BITXI DENDAN ZOZKETA EGIN DUGU.  
ZENBAKI IRABAZLEAK ETA ORDEZKOAK HAUEK DIRA:

1. SARIA

250 €-ko bonua

bitxi dendan gastatzeko

Zbkia.: **1.610**

Ordezko zbkia.: **1.784**

2. SARIA

250 €-ko bonua

bitxi dendan gastatzeko

Zbkia.: **754**

Ordezko zbkia.: **1.184**



## 17 BARIKUA

**10:30-13:30 / 17:30-20:30** Jaio-tza mekanikoa ikusteko azken eguna.

## 18 ZAPATUA

**20:00** Kontzertua: Low cost deluxe. Aita Agirreko kultur kafean.

## 22 EGUAZTENA

**17:00 eta 17:30** Ipuin kontalaria. Lehen saioa HH5eko haurrentzat, eta bigarrena, LH1 eta LH2koentzat. Gotzon Garate liburutegian.

## 23 EGUENA

**18:30** Solasaldia: 'Arrazismoa eta feminismoa': Irantzu Varela eta Norma Vazquez. Moderatzailea: Garazi Ayesta. Aita Agirre Kulturgunean. Doan.

## 24 BARIKUA

**22:00** Euskal Herriko mus txapelketako Mendaroko kanporaketa. Aitz Beltz tabernan.

### OHARRA

Elgoibarko Izarraren tonbolan saria tokatu eta momentuan jaso ez zenutenetako batzuk falta zarete oraindik saria jasotzeko. Urtarrilaren 31 baino lehen etorri mesedez BARREnera zuen oparia jasotzera. Barkatu eragozpenak.

BARREN

## SAN ANTON JAIK

### URTARRILAK 17, BARIKUA

#### San Anton Eguna

**11:00** Meza Nagusia, San Bartolome parrokian. Abesbatzak kantatuko du.

**11:30-14:00 / 16:30-19:30** Umeentzako parkea, Kalegoen plazan. (Euria egiten badu, Sigman).

**12:30** San Anton kontzertua: Arturo Duo Vital haize boskotea. Emudafek antolatuta, Herriko Antzokian.

**12:30** Zigilu Erakusketa: '50 Txiki Elkarrekin'. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

**17:30** Erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira, herriko dultzaineroekin.

**22:00** Pilota txapelketako finala, Ikastolako frontoian. Antolatzaileak: Lagunak eta Kirol Patronatua.

### URTARRILAK 18, ZAPATUA

**20:30** 'Martin Zalakain' dantza ikuskizuna. Ikerfolk Arterdrama taldeak taularatuko du, Olaizaga kiroldegian.

### URTARRILAK 19, DOMEKA

**16:30** 'Itsasoan deiadarra', antzerki musikatua. Musbika Elkartek taularatuko du, Herriko Antzokian.

### URTARRILAK 25, ZAPATUA

**11:00** Filatelia elkarteetako Euskal Federazioaren batzarra. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**13:00** Filatelia erakusketaren amaiera, eta parte-hartzaile eta laguntzaileei eskerrak emateko ekitaldia. Kultur Etxean.

## 43UM7000PLA LG LED TELEBISTA



**359 €**

43" • Smart TV • HDR • 4K • A

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
17 BARIKUA	18 ZAPATUA	19 DOMEKA	20 ASTELEHENA	21 MARTITZENA	22 EGUAZTENA	23 EGUENA	24 BARIKUA
Egunez Yudego	Egunez * Ibañez * Yudego	Egunez * Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez * Fernandez	Egunez Yudego	Egunez * Oruesagasti
Iluntzean Yudego	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia

\* Fernandez:  
Herriko enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00**  
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)  
943 206 984

## Abenduan hildakoak

- . **Luis Iriondo Egia**  
94 urte, abenduak 7
- . **Andres Pascual Mate**  
60 urte, abenduak 13
- . **Marcial Iranzo Murcia**  
88 urte, abenduak 13
- . **Julia Osa Alberdi**  
94 urte, abenduak 18
- . **Jose Jimenez Guembe**  
83 urte, abenduak 19
- . **Maximo Martinez Yuba**  
93 urte, abenduak 20
- . **Martina Andonegi Arriola**  
91 urte, abenduak 22
- . **Jesus Maria Zubiaurre Artetxe**  
69 urte, abenduak 24
- . **Ion Gabilondo Garate**  
55 urte, abenduak 27

## Zinea (Herriko Antzokian)

## 'La gran mentira'

17 barikua: 21:30  
18 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)  
19 domeka: 19:00  
20 astelehena: 21:30

## 'Los miserables'

(Ongarri zinekluba)  
16 eguena: 21:30



# ETXEBERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar  
info@funerariaetxeberria.com  
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

"Nire familiarekin nenbilen lore bila eta lore bat eta zirkulu diztiratsu bat topatu genituen".



Ariadna  
Güemez  
Gonzalez,  
5 urte,  
Elgoibar



"Asteburuan futbolari buruz hitz egiten egon ginen etxean eta partida bat marraztea bururatu zitzaidan, markadore eta guzti"



Danel  
Perez  
Herrero,  
5 urte,  
Elgoibar







## *Maria Armendia Ajuriagoikoa*

2020ko urtarrilaren 11n hil zen, 98 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## *Blanca Jauregi Arriaga*

2020ko urtarrilaren 10ean hil zen, 86 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## *Blanca Jauregi Arriaga*

2020ko urtarrilaren 10ean hil zen, 86 urte zituela.

Albiste txarrak etortzen dira  
zenbaitetan bat-batean,  
Blanca lagunak utzi gintuen  
eta aurreko astean,  
famiako emakumea  
etxekoen itzalean,  
beti gertuko, beti zintzoa,  
gertukoen esanean.  
Besarkada bat familiari,  
lagun hauen izenean.



## *Eugenio Intxausti Zubizarreta*

2020ko urtarrilaren 13an hil zen, 83 urte zituela.

**Zure oroimena  
beti izango da  
gure bihotzetan.**

Kimetz Elkarte



# ZAs!

Zurumuruen Aurrakako Sarea | Red Vasca antiRumores

## ZURRUMURRUEN AURKAKO FORMAZIO SAIOAK

# SOLASALDIA: Arrazismoa eta feminismoa



Urtarrilaren 23an, 18:30ean



Aita Agirre kulturguneko areto nagusian



Gazteleraz



**IRANTZU VARELA URRESTIZALA**

Kazetari feminista. *Faktoria Lila* espazio feministaren koordinatzailea. *Pikara Magazine* aldizkariko *Aló Irantzuko* aurkezlea eta *El Tornillo* saioaren sortzailea.



**NORMA VÁZQUEZ GARCÍA**

Psikologo feminista. Sortzen aholkularitza zerbitzuko zuzendaria.



Moderatzailea: **GARAZI AYESTA TXURRUKA**  
Kazetari feminista.

Solasaldia era informalean bukatzeko luntxa eskainiko da.

HAURRAK ZAINTEKO ZERBITZUA EGONGO DA

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputazioa Foral de Gipuzkoa



ORAIN  
GIPUZKOA



ELGOIBAR  
UDALAK  
AYUNTAMIENTO

# ZAs!

Zurumuruen Aurrakako Sarea | Red Vasca antiRumores